EBAZPENA, UPV/EHU-KO ERREKTOREARENA, GASTUA ETA ESPEDIENTEA ONARTZEN DITUENA, ETA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA HASTEA AGINTZEN DUENA, EHUko LEIOAKO CAMPUSEKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO E BLOKEKO SUTEEN AURKA BABESTEKO SISTEMA BERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO.

RESOLUCIÓN DEL RECTOR DE LA UPV/EHU POR LA QUE SE APRUEBA EL GASTO Y EL EXPEDIENTE, Y SE ORDENA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO ABREVIADO PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE LAS OBRAS RENOVACIÓN DEL SISTEMA DE PROTECCIÓN CONTRA INCENDIOS DEL BLOQUE E DE LA FACULTAD DE CIENCIA Y TECNOLOGÍA DEL CAMPUS DE LEIOA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO, EHU.

GERTAKARIA

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean, UPV/EHU) gerentearen 2026ko irailaren 29ko Ebazpenaren bidez, aipatutako obra kontratatzeko espedientea hastea erabaki zen.

Bigarrena.- Espediente administratiboan bildu dira legeak eskatzen dituen prestatze-agiri guztiak.

Hirugarrena.- Gehienezko aurrekontua 65.045,84 euro (BEZik gabe) + 13.659,63 euro (%21 eko BEZa), guztira 78.705,47 euro da (BEZa barne) UPV/EHUko 2026ko aurrekontuen kontura, espedientean jasota dagoen bezala,

Espedientean jasota dago kontratu honek eragin dezakeen gastuari aurre egiteko kreditu erreserba egina dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Resolución del Gerente de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU) de fecha 29 de septiembre de 2026 se acuerda el inicio del expediente para la contratación de la obra indicada en el encabezamiento.

Segundo. - El expediente administrativo consta de todos los documentos preparatorios legalmente exigidos.

Tercero. - El presupuesto base de licitación es de 65.045,84 euros (IVA excluido) + 13.659,63 euros (21 % de IVA), haciendo un total de 78.705,47 euros (IVA incluido), con cargo a los presupuestos del 2026 de la UPV/EHU, como consta en el expediente.

Consta en el expediente certificado de reserva de crédito para hacer frente al gasto que se derive del presente contrato.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Tramitazio honetan aintzat hartzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legea (aurrerantzean SPKL) —horren bidez sartu dira Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak—, urriaren 12ko 1098/2001 errege dekretuaren bidez onartutako araudi orokorra eta bat datorren eta oro har aplikatu beharreko gainerako arautegia.

Bigarrena.- Egin behar den kontratazioa obra kontratu administratiboa da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (SPKL) onartzen duenaren 13. eta 25. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta lege horren

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.- En la presente tramitación se observa la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, (en adelante LCSP) por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014; el Reglamento general aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y demás normativa concordante y de general aplicación.

Segundo. - La contratación a realizar se califica como contrato de obra de carácter administrativo, de acuerdo con lo establecido en los artículos 13 y 25 de la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público (LCSP), quedando sometida a dicha ley, así como al

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Data / Fecha	04/11/2026 11:06:59
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	ANDER ERRASTI LOPEZ		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Orrialdea / Página	1/3

mende geratzen da, eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak eta kontratazio administratiboaren arloan oro har aplikatzekoak diren gainerako arau bateragarriek onartutako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Arautegi Orokorraren mende.

Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001 de 12 de octubre y demás normativa concordante y de general aplicación en materia de contratación administrativa.

Hirugarrena.- Tramitaziorako prozedura irekia da, SPKLren 131. artikuluan adierazitakoaren arabera, bertan aurreikusten baitu esleipena modu horretan egingo dela era arruntean.

Tercero. - El procedimiento de tramitación es el abierto, en atención a lo contemplado en el artículo 131 de la LCSP, que prevé que la adjudicación se realizará ordinariamente de este modo.

Prozedura horren ezaugarria da gaitasuna duen edozein enpresaburuk egin ditzakeela proposamenak, eta ezin dira lizitatzaileekin negoziatu inondik ere kontratuari buruzko baldintzak (SPKLren 156. artikulua).

Este procedimiento se caracteriza por permitir a todo empresario capacitado la presentación de proposiciones, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato con las licitadoras (artículo 156 de la LCSP).

Era berean, erreferentziako espedientean Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.6 artikuluko zirkunstantziak ematen dira. Lege horren arabera, bidezkoa da kontratua prozedura ireki sinplifikatu laburtu bidez esleitzea.

A su vez, en el expediente de referencia concurren las circunstancias del artículo 159.6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, en virtud del cual es procedente la adjudicación del contrato mediante procedimiento abierto simplificado abreviado.

Era berean, aurrekontua eta Administrazio Baldintza Berezien Orria prestatzerakoan goian aipatu diren eta aplikagarri zaizkien xedapen guztiak izan dira kontuan.

Igualmente, en la elaboración del presupuesto y del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares se han tenido presentes las disposiciones invocadas que le son de aplicación.

Laugarrena.- 9/2017 Legearen 117. artikuluak arautzen du noiz den egokia kontratazio espedientea onartzea, eta eskatzen du kontratazio organoak ebazpen bat ematea, hura onartu eta esleipen prozedura hastea agintzeko. Ebazpen horrek berekin dakarren gastua onartzea ere ekarriko du.

Cuarto. - El artículo 117 de la Ley 9/2017 regula cuando procede la aprobación del expediente de contratación, exigiendo que se dicte una resolución por el órgano de Contratación, aprobando el mismo y disponiendo la apertura del procedimiento de adjudicación. Dicha resolución implicará también la aprobación del gasto que lleva aparejado.

Bosgarrena. - Kontratazio-espediente hau onartzeko eskumena UPV/EHUko errektoreak du, UPV/EHUko kontratazio-organoa den aldetik, UPV/EHUren Estatutuetako 230.1 artikuluaren arabera

Quinto.- Es competente para aprobar el presente expediente de contratación, el Rector de la UPV/EHU, en su condición de órgano de contratación de la UPV/EHU, de conformidad con el artículo 230.1 de los Estatutos de la UPV/EHU.

Aipatutako xedapenen arabera, **ERABAKI DUT**

Conforme a las disposiciones citadas, **RESUELVO:**

Lehena.- Goian aipatutako gastua eta espedientea onartzea eta prozedurari hasteko agintzea.

Primero. - Aprobar el gasto y el expediente y ordenar el inicio del procedimiento.

Bigarrena.- Baimena ematea honako gehienezko gastua egin dadin: **78.705,47 (BEZa barne)** UPV/EHUko aurrekontuaren kontura.

Segundo. - Aprobar un gasto máximo de 78.705,47 **euros (IVA incluido),** con cargo al presupuesto de la UPV/EHU.

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Data / Fecha	04/11/2026 11:06:59
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	ANDER ERRASTI LOPEZ		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Orrialdea / Página	2/3

Hirugarrena.- Prozedura ireki sinplifikatu laburtuan esleipen prozedura zabaltzeko baimena ematea, sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Tercero. - Autorizar la apertura del procedimiento de adjudicación en la forma de procedimiento abierto simplificado abreviado, según lo dispuesto en el artículo 159.6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Leioan, sinadura elektronikoaren datan.

En Leioa, a fecha de la firma electrónica.

ERREKTOREA/ EL RECTOR

(Izendapena eta izenpea eskuordetzea Errektorearen 2026ko urriaren 26ko erabakian/ Nombramiento y delegación de firma por Resolución del Rector de 26 de octubre de 2026)

GERENTEA/EL GERENTE
ANDER ERRASTI LÓPEZ

Lokalizatzailea / Localizador	IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Data / Fecha	04/11/2026 11:06:59
Araua / Normativa	Elektronikoki sinatutako dokumentua (203/2021 ED). Benetakotasuna adierazitako URLan lokalizatzaile bidez egiazta daiteke / Documento firmado electrónicamente (R.D.203/2021). Autenticidad verificable mediante localizador en la url indicada.	Dokumentuaren baliozkotasuna / Validez del documento	Otros
Sinatzaile / Firmante	ANDER ERRASTI LOPEZ		
Egiaztapenerako URLa / Url Verificación	https://app.ehu.eus/verifirma/code/IVVH3W2NDAOI3D5LCJY54QXAKY	Orrialdea / Página	3/3